



## Mayi Mujika eta Julen Martinez de Estibariz Espainiako Kopako podiumera igo dira hirugarren postuan

**2018ko abuztuak 6.** Lortu dute! Mendi lasterketen Espainiako Kopako podiumera igo dira bai Mayi Mujika eta baita Julen Martinez de Estibariz ere, euskal selekzioko ordezkariak hirugarren amaitu dute sailkapen orokorrean. Zorionak!

Espainiako Kopako bosgarren eta azkena jokatu zen atzo Castelloko Vistabellan. Mayi Mujika 5. sailkatu zen, eta Julen Martinez de Estibariz 9., eta hala podiumean amaitu dute bietan. Batak zein besteak, gainera, gertu izan dute bigarren postua, oso sailkapen estuan.

### MENDI LASTERKETEN LINEA ERAKO ESPAINIAKO KOPA 2018

GIZONEZKOAK		EMAKUMEZKOAK	
1.Andreu Simon (Catalunya)	372	1.Sandra Sevillano (Bilbo)	376
2.Juan Jesus Bravo (Andalucia)	308	2.Bel Calero (Illes Balears)	327
<b>3.Julen Martinez de Estibariz</b>	<b>300</b>	<b>3.Mayi Mujika</b>	<b>300</b>
4.Borja Fernandez (KCantabria)	283	4.Andrea Gil (Extremadura-Sestao Graf)	270
5.Abel Carretero (Catalunya)	247	5.Ana Tauste (Valencia)	266

### CURSA PER MUNTANYA VISTABELLA

GIZONEZKOAK		EMAKUMEZKOAK	
1.Mario Bonavista (Valencia)	2:24:30	1.Sandra Sevillano (Bilbo)	2:56:12
2.Abdelfatah Dalal (Andalucia)	1:18	2.Mireia Pons (Catalunya)	2:37
3.Juan Jesus Bravo (Andalucia)	2:56	3.Julia Font (Valencia)	3:13
<b>9.Julen Martinez de Estibariz</b>	<b>10:48</b>	4.Laia Cañes (Valencia)	5:19
		<b>3.Mayi Mujika</b>	<b>5:59</b>

### MAYI MUJIKA (Legazpi/Urretxu/Elgoibar)

**“Oso pozik nago. Kopan hasi nintzanean ez nuen inondik inora podiumean amaitzea espero”**

“Lasterketa hau oso azkarra zen. Zumaian asko sufritu nuen eta honetan ere antzera gertatuko zitzaidala pentsatzen nuen. Bosgarren postua ona izanik ere, azken igoerako azken 200 metrotan pasa nau Laia Cañesek eta pena izan da”

“Esperientzia oso ona izan da Espainiako Kopan lehendabizikoz parte hartzea. Batetik lortu ditudan emaitzak lortzerik espero ez nuelako, ez nuen inondik inora podiumean amaitzea espero. Eta bestetik Euskal Selektzioan dagoen giro onagatik. Sorpresa atsegina izan da oso selekziokoa”



“Orain? Oporrak Alpeetan, eta haien amaieran Munduko Skyrunner Kopako Zermatten (abuztauk 24) parte hartzeko aukera. Bestelakoan aurten Goierriko 2 Handiak prestatu nuen eta 18 km eginda bertan behera geratu zen lasterketa. Haren faltan Hiru Haundiak egiteko asmoa dut (urriak 20), baina astebete lehenago Munduko Skyrunner Kopako azkena, Limone (urriak 13), korritu dezaket eta ikusi egin behar”.

Mayi Mujikaren emaitzak Espainiako Kopan:

5. Trail Cara los Tajos (Malaga)
4. Garganta de los Infiernos (Caceres)
3. Panxampla (Tarragona)
7. Zumaia Flysch Trail
5. Vistabella (Castelló)

### **JULEN MARTINEZ DE ESTIBARIZ (Hermua)**

**“Hirugarrena ona izanik ere penatuta nago bigarrena ez lortu izanagatik”**

“Gai ikusten nintzen bigarren bukatzeko. Indartsu nengoen. Espainiako txapelketan Bravoren aurretik amaitu nuen, eta banekien hura zaindu behar nuela, baina azken proba honen ezaugarriak aproposagoak ziren harentzat, luzaz orrika aritzeko modukoa zene, eta ez da posible izan. Sailkapen orokorreko hirugarrena ona izanik ere penatuta nago bigarrena ez lortu izanagatik”

“Gogorra izan da Vistabellako lasterketa. Lehorra, harritsua, gu ohituagoak gaude lokatzetan ibiltzera. Eta lasterketako lehen postuetatik urrundu naizenean beldurtu ere egin naiz, ea beheak jota geratuko ote nintzen, baina zorionez eutsi egin diot”

“Orain? Abuztuan lan egitea tokatzen zait, beraz Zermatt seguru ezetz, baina badut gogoia besteren bat egiteko Munduko Kopan”

Julen Martinez de Estibarizen emaitzak Espainiako Kopan:

5. Trail Cara los Tajos (Malaga)
4. Garganta de los Infiernos (Caceres)
2. Panxampla (Tarragona)
9. Vistabella (Castelló)

Euskal Selektzioarekin Espainiako Kopan debut polita egin zuena **Maite Etxezarreta** izan zen. Azpeitiarrak 8. amaitu zuen lasterketa. Haren helburua, orain, aurtengo EMF Rankigneko lidertzari eustea da. **Asier Alonsok** ere parte hartu zuen atzo Vistabellan elastiko urdinarekin, eta 24. postuan amaitu zuen.

Euskal Selektzioa, orohar, maila bikainean aritu da Espainiako Kopako bost probetan. Tarragonako Panxamplan, zirkuito hirugarrena, Julen Martinez de Estibariz 2.a izan zen eta Mayi Mujika 3.a. Asier Larruzeak Jerten 2. amaitu zuen. Eta promesa mailan Xabier Maciasek Jerten irabazi egin zuen. Mujika eta Martinez de Estibarizen azken podiumak izan dira sari.

euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA  
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION



**Irati Zubizarreta eta Ane Iturria Gazte mailako Munduko Txapelketan dominak lortzeko zorian**

Euskal Mendizale Federazioko Irati Zubizarreta (Youth B, 18-20 urte) eta Ane Iturria (Youth A, 16-17 urte) gazte mailako Munduko Txapelketan Espainiako Selekzioarekin aritu dira Italiako Apeninoetan, Gran Sassoko L'Aquilan.

Biek hala biek 4. amaitu dituzte beren lasterketak, bai bertikala eta baita linea erakoa, eta dominak lortzeko zorian izan dira.



Mendi Lasterketen Euskal Seleksioa



EMF-FVM



**MUNDUKO KOPA**

OIHANA AZKORBEBEITIA (Abadiño)  
NAHIA QUINCOCES (Mendexa)  
JOKIN LIZEAGA (Urnieta, Zanpatuz ME)  
HASSAN AITCHAOU (Villabona, Idiazabal KE)  
IMANOL GOÑI (Ea, ArrolapeMT)  
BEÑAT KATARAIN (Zegama, Goierri Garaia)

**MUNDUKO ULTRA TXAPELKETA**

LEIRE MARTINEZ (Portugaleta, Erlaitz ME)  
JAVI DOMINGUEZ (Gasteiz)  
JON ERDAIDE (Gorliz, Zanpatuz ME)  
RAUL MACARRO (Bilbo)

**ESPAINIAKO KOPA ETA TXAPELKETA**

AITZIBER IBARBIA (Zizurkil, Aizkardi ME)  
MAYI MUJIKA (Urretxu, Morkaiko ME)  
IBAN LETAMENDI (Oñati, Aloña Mendi KE)  
JULEN MARTINEZ DE ESTIBALIZ (Hermua)  
ASIER ALONSO (Oñati, Zortzietakoak KE)  
ANDER IÑARRA (Lezo)  
XABIER MACIAS (Iruña, Sestao Alpino)  
ASIER LARRUZZEA (Güeñes, Azpigorri MK)  
MAITE ETXEZARRETA (Azpeitia, Sokaitz)



VASA

Mendi Lasterketen Euskal Selektzioaren 2018ko EGUTEGIA

**MARTXOA**

8 Espainiako Kopa Trail Cara los Tajos, Alhaurin el Grande, Malaga

**APIRILA**

15 Espainiako Kopa Garganta de los Infiernos, Jerte, Caceres

**MAIATZA**

6 Espainiako Kopa Panxampla, Alfara de Carles, Tarragona

20 Espainiako Txapelketa KB KV Arredondo, Cantabria

27 Munduko Kopa Zegama-Aizkorri

**EKAINA**

10 Espainiako Txapelketa Mabo, Borriol, Castellon

16 Munduko Kopa Livigno SkyMarathon (Italia)

23 Munduko Kopa Olympus Marathon, Dion (Grezia)

24 Espainiako Kopa Zumaia Flysch Trail

**UZTAILA**

1 Munduko Kopa Buff Epic trail, Barruera, Lleida

29 Munduko Kopa Comapedrosa Skyrace (Andorra)

**ABUZTUA**

5 Espainiako Kopa Vistabella, Castellón

25 Munduko Kopa Matterhorn Ultraks, Zermatt (Suitza)

**IRAILA**

1 Espainiako Ultra Txap Valle de Tena, Panticosa

1 Munduko Kopa The Rut (Amerikako Estatu Batuak)

14 Munduko Ultra Txap Ben Nevis Ultra (Eskozia)

**URRIA**

13 Munduko Kopa Limone Extreme (Italia)